

MARRA LEUNAREN **ESPLORATZAILEA**

Xabier Gantzarain

NOIA ETIOPIAREN ESPLORATZAILEAK ez zuen mundu xalo bat aurkitu, Erramunen marrazkietako marra leunak ere ez du mundu leun bat erakusten. Inork ez bailuke sinistuko 70. hamarkadako Bilbo leuna zenik. Eta inon ez baita bizitza leuna egia ikusten dakien artistarentzat.

Erramunen marrazkietako marra leunak artistaren barne munduetara garamatza eta handik, oroitzapenen zurrunbiloan biraka, guztion barne munduak gauzatzen diren errealitate egoskorrera. Krokadiloz, izaki antropomorfoz, mila modutako katuz, ganibetez eta hiltzera kondenatuz beterik ageri dira marrazkiak. Baina ez dadila inor asalda; kroka-

diloz, izaki antropomorfoz, mila modutako katuz, ganibetez eta hiltzera kondenatuz beterik dago bizitza.

Erramunen marrazkietako marra leunak izaki sexualak sortzen ditu. Eta benetakoak baino hiriago diren hiriak. Hiri mentalak. Galtzera gonbidatzen gaituzten etxeorrazak eta inora ez garamatzaten zubiak. Berriro hasierara iristeko lain okertzen diren kaleak. Bihotzeko kale konzentrikoak.

Bihotzak ere ageri baitira, eta loreak, kuku-prakak esatera-ko, eta ile luzeko emakumeak, eta amona haurtzaro goxoaren lekuko, eta kalatxoriak, eta giza buruen arkitektura posible bat, eta etxerik gabeko leihoak, eta basoko tigreak, eta sugeak ihesaren metafora lez, eta bururik gabe, burua galduta, txoraturik dabilzan gizakiak, eta oinak, era guztieta-ko oinak, oinak lurrean tinkatzeko, oinak hegan egiteko, oinak mundu ezezagunetan ibiltzeko.

Espazio mugagabeetan pausatzen diren galderak, aurpe-giko zimurretan azaltzen diren bizipenak, gaizki ulertutako zorientasunak ezkutatzen dituen mehatxuak, denboraren isurtze etengabeak sortzen dituen malko gozoak, egunerako bizitzak isuri zituen labezomorroak eta Bernardo Atxagaren literaturak euskararen mundura ekarri dituen beste hainbat irudi gorpuztu ditu Erramunen marrazkietako marra leunak.